Gabon Gasteiz

Ohorea da gaur hemen izatea. Nire herrian, nire herrikideen aurrean eta jai aurreko giro eder honetan. Eskerrik asko posible egin dutenei, ahotsa eman didatenei. Eskerrik asko etorri zareten guztioi.

Nire amonak esaten zuen kantatzen duen jendea bizirik dagoela, barrutik bizirik, benetan bizirik, eta jende guztiak abestuko balu mundua hobeto joango litzatekeela. Herriekin antzeko zerbait gertatzen da.

Abesten duen herri bat, dantzatzen duen herri bat, bere jaiak ospatzen dakien herri bat bizirik dago, baina horrez gain, herri jakintsua da. Herri jakintsua da jaiek lagundu egiten diotelako herriaren batasunari, herriaren kohesioari. Gu kolektibo bat sortzen laguntzen dute, halako harrotasun kolektibo bat. Beraz jaiak, ondo pasatzeko eta gozatzeko aukera eder bat izateaz gain, badira, edo izan daitezke, edo bihurtu ditzakegu, zergatik ez, elkarbizitza hobetzeko tresna bat.

En mi familia me han transmitido siempre que es importante celebrar. Mi abuela decía que si todas las personas cantáramos, el mundo iría mucho mejor y mi padre (un gran cantante, por cierto) también me transmitió la importancia de disfrutar. Y las fiestas nos dan una oportunidad para ello, sin duda, pero son algo más.

Las fiestas son un elemento de cohesión social, porque construyen una especie de orgullo colectivo de un pueblo y nos ayudan a sentirnos parte de una comunidad. Nos ofrecen por tanto una gran oportunidad para reivindicar que a pesar de las diferencias, de las procedencias, esta ciudad es de todas las personas que la habitan, la viven y la construyen día a día. Y por supuesto de quienes la celebran.

Nire lana idaztea da. Eta idazleak beti dauka aurrean orri zuri bat. Aukera berri bat. Hiriek ere bai.

Gasteiz. Gure hiria. Gu guztion artean egunero idazten dugu bere historia, nobela bat balitz bezala. Hiritarrak ez garelako eta ez dugulako izan nahi istorio honen ikusle hutsak. Guk istorio honen idazle izan nahi dugu.

Idazlea idaztera jartzen denean, baina, ez da zerotik hasten, beti dago iragan bat, beti dago aurreko egunean idatzi duena. Hiriekin ere berdin gertatzen da.

Gure historia idazten jarraitzeko atzera begiratu beharra dago beti. Horrela egiten dute herri jakintsuek. Eta atzera egiten badugu, ez asko, berrogei-berrogeita hamar urte, ikusiko dugu Gasteiz hiri irekia izan dela, eta Gasteizek kanpotik etorritako jende asko bihurtu duela gasteiztar.

Me gustaría pensar en esta ciudad como un texto sobre el que se escribe. Al igual que cuando nos ponemos a escribir, en la vida, nunca se empieza de cero. En nada. Tampoco en la construcción social de una ciudad. Siempre hay un pasado y un presente que nos marca.

Y en ese pasado no muy lejano veo a mi padre y a mi madre, a quienes, como a otras muchas gentes, esta ciudad dio trabajo, cobijo y espacio para crear una familia. Una nueva oportunidad de vida. No han pasado cincuenta años desde aquel gran crecimiento que experimentó esta ciudad con muchísima gente que vino de distintos pueblos Alava, de Euskadi, y también de Galicia, de Cáceres, de Castilla-León, de Andalucía… Seguro que aquí hay gente muy vitoriana nacida en muchos de esos lugares. Porque si por algo se ha caracterizado esta ciudad en este tiempo es por convertir en vitoriano o vitoriana a quien la ha habitado, a quien le ha dado vida.

Y hoy volvemos a estar ante una nueva página en blanco. Y en nuestra mano está seguir escribiendo la historia de una ciudad abierta, como lo ha sido hasta ahora, de una ciudad diversa, amable, plural, una ciudad que acoge a quien quiere vivir en ella, y una ciudad solidaria. O si queremos escribir otra historia. Porque escribir supone elegir constantemente. Elegir un camino y descartar otros.

En nuestra mano está. Y sinceramente, espero que uno de los capítulos que escribamos con éxito sea el de  la convivencia.

Jaiak ospatzen dakien herri bat herri jakintsua da jaiek erakusten digutelako kate baten zatia garela. Gure aurretik beste asko izan direla, eta gure ondoren asko etorriko direla. Kultura bat, hizkuntza bat eta ohitura batzuk ditugula.

Horregatik sentitzen dut gaur ni ere kate horretako zati bat naizela. Eta horregatik sentitzen dut gaurko nire ahotsa ez dela nire ahotsa bakarrik.

Hitz hauek, une honetan erabiltzen ari naizen hitz hauek, hitz berriak dira baina hizkuntza zahar baten idatziak eta esanak. Ni jaio baino askoz lehenago bizirik zegoen hizkuntza bat, ni hil ondoren biziko dena.

Ahots asko daude nire gaurko ahots honen atzean. Hemen Gasteizen lehen ikastola sortu zuten andereño eta guraso ausart haien ahotsak daude adibidez. Euren seme alabentzako hezkuntza euskaldun bat aukeratzeko ausardia izan zutenak. Jende asko dago hizkuntza honen atzean. Euskara bizirik mantentzea lortu duen jende kate luze bat.

Eta gure hirian euskaraz bizitzeko ahalegina egiten duten guztiak. Euskarari Gasteizen dagokion lekua eskaini nahi diotenak. Eta euskara gozatu eta erabili nahi dutenak. Baita jaietan ere. Gero eta gehiago gara kate luze honetan.

El hecho de que hoy yo tenga voz, tenga protagonismo sobre un escenario, es la suma también de muchas otras voces. De una larga cadena que viene de atrás.

Soy consciente de que sería impensable que hoy tuviera este papel protagonista en la plaza pública, sin la aportación y el coraje de muchas mujeres que me han precedido en la Historia. Las que lucharon porque pudiera desarrollarme como persona, tener mi autonomía, mi educación, las que reivindicaron el protagonismo de las mujeres en el espacio público.

Creo que es un buen momento para recordar a las mujeres que nos han precedido (las importantes en la historia, pero también las importantes en cada una de nuestras familias). Mujeres anónimas. Mujeres fuertes. Mujeres que han trabajado a destajo y a quienes nunca se ha reconocido debidamente su aportación a la sociedad. Y mujeres que nos han animado a otras mujeres a no rendirnos.

Me gustaría pensar en esta ciudad como un texto sobre el que se escribe y que en las próximas páginas las mujeres ocuparan el lugar que realmente se merecen.

Horregatik gaur nire ahotsa irrintzi bat izatea nahiko nuke. Irrintzi alai bat, jaietako atarian gaudela adierazten diguna, baina irrintzi indartsu eta sendo bat, emakumeen indarra erakutsiko duena, emakumeen ahotsa, erabakia.

Irrintzi bat. Emakumeek jaiak eta gure bizitzako egun guztiak askatasunez bizi nahi ditugula aldarrikatzen duena. Eta noski, jaietan eta jaietatik kanpo ere eraso sexistarik ez dugula onartuko oihukatzen duena. Ez gaude prest biktima izateko, guk, emakumeak, protagonista izan nahi dugu, jaietako protagonista, eta gure bizitzen protagonista baita ere urte osoan zehar. Kalean eta etxean. Etxean eta kalean.

Eta herri jakintsu bat baldin bagara, kontuan izango dugu hau guztion erronka dela. Erasoak izeberg handi baten punta baino ez direla, eta ez dela nahiko erasoen kontra agertzearekin. Eguneroko jarrera aktibo bat behar dela berdintasunaren alde.

Recordando a Emma Goldman, yo diría aquello de si no puedo bailar, si no podemos bailar todas, esta no es nuestra fiesta. Y queremos que sea nuestra fiesta y que la podamos disfrutar en libertad. No queremos ser ni adornos, ni objetos para la diversión de nadie, ni víctimas. Queremos ser protagonistas.

Los pueblos sabios saben que la clave para la supervivencia de las tradiciones está en su constante renovación, en su adaptación a los tiempos. Las fiestas, las tradiciones sólo sobrevivirán si se actualizan constantemente, si se amplían, si se da cabida en ellas a todas las voces. Y sobre todo, si se ajustan a los derechos de las personas.

Sin derechos, no hay fiesta. No hay fiesta sin respeto.

Gure gizartean korronte indartsu asko daude, inertzia handi asko: matxismoa horietako bat da, oso indartsua, baina hor daude beste asko, ezjakintasuna, arrazakeria, intolerantzia, kontsumismoaren diktadura…

Libre izan nahi duen herri batek inertzia indartsu horiei aurre egin behar die. Baina horretarako helduleku batzuk behar ditu, soka batzuk zeinetara heldu. Eta soka horietako bat dudarik gabe jakintza da, ezagutza, eta kultura. Kulturarik gabeko herri bat ez da inoiz libre izango. Jakintzarik gabeko herri bat, herri esklabua da.

La ignorancia es quizás uno de los peores enemigos de una sociedad. Los pueblos sabios ofrecen a las personas instrumentos para luchar contra la ignorancia. No podemos ser libres sin conocimiento, sin cultura.

Hay quien confunde ser libre con no tener ninguna atadura. Pero es necesario tener la atadura de la cultura, para que nos ayude a entender lo que ocurre en el mundo, para que abra nuestra mirada, para ver los matices, para ser un poco menos arrogantes. Necesitamos también la atadura de las raíces que nos digan quienes somos y de donde somos.

Vivimos en un mundo globalizado, con una tendencia a ser cada vez más uniforme. Y un mundo mercantilizado, en el que cada vez tiene más importancia el tener que el ser.

La cultura de cada país, sus tradiciones, su historia, su lengua, su manera de ver la vida, su manera de celebrar las fiestas, son parte del ser. Y es fácil quitarte lo que tienes, pero no es tan fácil hacer desaparecer de un plumazo lo que eres.

Vivimos en una sociedad dominada por la dictadura del beneficio, del beneficio inmediato y práctico, pero hay otros valores, otras inversiones que generan otro tipo de riqueza, una riqueza a largo plazo. Y la cultura es uno de esos grandes valores. Cultura para ser libres. Para tener criterio. Para no dejarnos manipular por los discursos del miedo. Para salir de la hipnosis.

Y también, por supuesto, para disfrutar de la belleza, para apreciarla. Estamos de paso, nuestra vida es limitada. No sería inteligente pasar por ella sin apreciar la grandeza de la belleza. De las letras, de las artes, del cine, de la música que vamos a escuchar en el concierto de esta noche.

Jaiak ospatzen dakien herri bat herri jakintsua da, jaiek hiritarren parte hartzearen indarra erakusten dutelako. Baina indar hau urte osoan zehar ikusi dezakegu hiri honetan. Gasteiz ez dago lokartuta. Hiri honetan jende asko dago adi, bizirik eta antolatuta.

Begira bestela nola erreakzionatu duen herri honek behar izan denean arrazakeriaren kontra, nola bildu dituen hainbat jende ezberdin Gora Gasteiz bezalako ekimen batean. Eta nola dauden beste hainbat eta hainbat herri mugimendu herri honetan adi, gertatzen denari adi, eta lanean. (Gaur goizean hainbat gazte ikusi ditut txosnak prestatzen. Gora zuek). Eta begira nola hiri honek berriz ere gogoratu duen aurten berrogei urteren ondoren, martxoaren 3an Zaramagako auzoan gertatutako sarraskia. Ez. Hiri hau ez dago lotan. Adi dago, eta bizirik dago.

Me gusta pensar en esta ciudad como un texto sobre el que se escribe. Pero las grandes historias no se hacen con palabras grandilocuentes, como tampoco se construye un hogar con ladrillos de oro. Las grandes historias, las verdaderas, se hacen con palabras sencillas, las del día a día, las de viaje en autobús hacia el trabajo, las de las amistades con las que nos reunimos cada viernes, las de los valores que transmitimos con nuestros gestos cotidianos.

Las grandes ciudades no se construyen con proyectos grandilocuentes, o con títulos internacionales, las grandes ciudades sólo consiguen la medalla de grandes cuando quien las visita o quien vive en ellas siente el latido, los latidos humanos, la calidad humana de las personas en los pequeños gestos: en la bienvenida a quien llega de otro país, en la solidaridad de un vecindario con una familia golpeada por la crisis, en el respeto

cuando frenamos en un paso de cebra, en el buenos días al entrar a un comercio o a una oficina, en la manera de saludarnos por la calle, en la manera de tener en cuenta a las personas con movilidad reducida, o en la forma de cuidar a las personas mayores… La calidad humana se mide en el grado de tolerancia y en el grado de empatía de las personas. Y eso no se puede comprar. Eso sólo se puede aprender. Y transmitir. En esta larga cadena de la que somos parte. Y en esa página en blanco que escribimos cada día.

Me gustaría que disfrutáramos de estas fiestas con el orgullo de quien se sabe parte de una ciudad con latido. Una ciudad que siente. Una ciudad viva.

Nire amonak esaten zuen kantatzen duen jendea bizirik dagoela, benetan bizirik. Herriekin ere berdin gertatzen da.

Erakutsi dezagun Andre Mari Zuriaren jai hauetan hiri hau bizirik dagoela. Herri honek irrintzi baten indarra duela. Eta bere abesti, dantza eta ospakizun guztien azpian milaka bihotz daudela taupadaka. Adi eta bizirik dauden milaka bihotz.

Beraz, Gora bihotzak

Eta Gora Gasteiz

Eskerrik asko eta zorionak gasteiztar guztioi.